**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita biko uztailaren bostean** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 21 gaia.**

**"21.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA "ITSASADARREKO OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO ARDATZAREN TRAZADURA PROIEKTUA. TARTEA: LUTXANA-ALTZAGA" BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO ETA PROIEKTU HORREN JENDAURREKO INFORMAZIOA EMATEKO ETA ENTZUTEKO IZAPIDEA BETETZEKO, BIZIKLETENTZAKO BIDEEN SEKTOREKO ARAUTEGIAREN ONDORIOETARAKO.**

**Lehenengoa**.- **ITSASADARREKO OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO ARDATZAREN TRAZADURA PROIEKTUA (TARTEA: LUTXANA-ALTZAGA)** behin-behinean onestea. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, **HAMAIKA MILIOI BERREHUN ETA HOGEITA BAT MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMOKOA (11.221.232,30 euro)** da, eta, **BEZarekin (% 21), HAMAHIRU MILIOI BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO ETA ZORTZI ZENTIMOKOA (13.577.691,08 euro)**. Lanak betearazteko aurreikusten den epea **HOGEI (20) HILABETEKOA** izango da. Hori guztia, onesteko bidali diren eta espedientean jasota dauden proiektua eta txostena oinarri hartuta.

**Bigarrena**.- Jendaurreko informazioaren eta tokiko eta erakunde publikoen entzunaldiaren izapidea hasteko agintzea, Bizkaiko bizikletentzako foru bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorrean, 22. artikuluari lotuta xedatutakoarekin bat etorriz.

**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **cinco de julio de dos mil veintidós**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 21 del Orden del Día.**

**"21º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN PROVISIONAL DEL "PROYECTO DE TRAZADO DEL EJE PEATONAL Y CICLABLE DE LA RÍA. TRAMO: LUTXANA-ALTZAGA" Y SU SOMETIMIENTO AL TRÁMITE DE INFORMACIÓN PÚBLICA Y AUDIENCIA A LOS EFECTOS DE LA NORMATIVA SECTORIAL DE VÍAS CICLISTAS.**

**Primero**.- Aprobar provisionalmente el "**PROYECTO DE TRAZADO DEL EJE PEATONAL Y CICLABLE DE LA RÍA. TRAMO: LUTXANA-ALTZAGA**". El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de **ONCE MILLONES DOSCIENTOS VEINTIUN MIL DOSCIENTOS TREINTA Y DOS EUROS CON TREINTA CENTS. (11.221.232,30 Euros)** y con **IVA (21%)** a la cantidad de **TRECE MILLONES QUINIENTOS SETENTA Y SIETE MIL SEISCIENTOS NOVENTA Y UN EUROS CON OCHO CENTS. (13.577.691,08 Euros)**. El plazo estimado de ejecución es de **VEINTE (20) MESES**. Todo ello con fundamento en el Proyecto e Informe remitido para aprobación, que constan en el expediente.

**Segundo**.- Ordenar el inicio del trámite de información pública y audiencia a las corporaciones locales y a las entidades públicas, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Primera en relación con el artículo 22 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. L9WS-KNV6-YOU5-EN86 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) L9WS-KNV6-YOU5-EN86 en www.ebizkaia.eus.

**<u>Hirugarrena</u>.-** Proiektu hori jendaurreratu egingo da **HOGEITA HAMAR (30) EGUN BALIODUNEKO** epean, proiektua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunaren biharamunetik aurrerako lehenengo egun baliodunetik hasita; horren guztiaren xedea da epe horretan bizikletentzako bide interes orokorrekotzat hartzea justifikatzen duten inguruabarrei eta trazatuaren kontzepzio orokorrari buruz egoki iritzitako alegazio eta oharrak aurkeztu ahal izan daitezela.

**<u>Laugarrena</u>.-** Aurrekoa aintzat hartuta, espedientea jendaurrean jartzea Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulegoetan (Bilboko Ibañez de Bilbao kaleko 20. zenbakian), aztertu eta dagozkion alegazio eta oharrak aurkeztu ahal izan daitezen bertako erregistroan; nolanahi ere, alegazio eta ohar horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehazten diren tokietako edozeinetan ere aurkez daitezke.

Era berean, 39/2015 Legearen 83.2. artikuluan xedatutakoa betez, Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko "Jendaurreko informazioko fasean dauden planak eta proiektuak" atalean kontsultatu ahal izango da, eta, era berean, alegazioak aurkeztu ahalko dira webgune horretan adierazitako bulego birtualaren bidez.

**<u>Bosgarrena</u>.-** Aipatutako iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**<u>Seigarrena</u>.-** Proiektuaren kopia bat bidaltzea ukitutako udalei (Bilbo eta Erandio) eta Bilboko Portuko Agintaritzari. Horrela, aipatutako udalek eta erakundeak bi hilabeteko epea izango dute, proiektua jasotzen duten egunaren hurrengo egunetik hasita, proiektua aztertzeko. Epe horretan esan behako dute proiektuarekin bat datozen, eta orduan egin beharko dituzte egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak. Epe hori igaro bada eta udalek horri buruzko irizpenik eman ez badute, proposamen horrekin ados daudela ulertuko da. Hori guztiori, erabaki honen oinarrietan adierazitako araudian ezarritakoarekin bat etorrita.

**<u>Tercero</u>.-** Someter el citado Proyecto al trámite de información pública por un plazo de **TREINTA (30) DÍAS HÁBILES** a contar desde el primer día hábil siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, a fin de que en dicho plazo puedan presentarse cuantas alegaciones y observaciones se estimen oportunas sobre las circunstancias que justifiquen la declaración de interés general de la vía ciclista y sobre la concepción global de su trazado.

**<u>Cuarto</u>.-** A los efectos anteriores poner de manifiesto el expediente en las dependencias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, sito en la c/ Ibáñez de Bilbao nº 20, donde podrá ser examinado, pudiendo presentarse las oportunas alegaciones y observaciones en el registro de dicha dependencia, sin perjuicio de la posibilidad de presentar las mismas en cualquiera de los lugares permitidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 83.2 de la Ley 39/2015, podrá consultarse en la sección de "Planes y proyectos en fase de Información Pública" de la web de la Diputación Foral de Bizkaia e, igualmente, se podrán presentar las alegaciones a través de la oficina virtual señalada en la citada web.

**<u>Quinto</u>.-** Insertar el correspondiente anuncio en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

**<u>Sexto</u>.-** Remitir el proyecto que nos ocupa a los ayuntamientos afectados de Bilbao y Erandio y a la Autoridad Portuaria de Bilbao, al objeto de someterlo al trámite de audiencia, para que los citados ayuntamientos y organismos lo examinen en el plazo de dos meses, e informen sobre su conformidad o disconformidad con el Proyecto y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo sin que se informe a este respecto se entenderá que están conformes con la propuesta formulada. Todo ello, de conformidad con lo dispuesto en la normativa mencionada en los fundamentos de la presente resolución.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. L9WS-KNV6-YOU5-EN86 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) L9WS-KNV6-YOU5-EN86 en www.ebizkaia.eus.

**Zazpigarrena**.- Aurreko erabakien berri ematea Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiari (Bide-sarea Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia), eta, era berean, foru erabaki hau jakinaraztea Bilboko eta Erandioko udalei, eta Bilboko Portuko Agintaritzari."

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

**Séptimo**.- Comunicar los acuerdos anteriores a la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria (Subdirección General de Gestión de la Red Viaria), así como notificar el presente acuerdo foral a los Ayuntamientos de Bilbao y Erandio a la Autoridad Portuaria de Bilbao."

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

***ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME***

Idazkaritza orokorreko unitateko burua.Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

***ZIURTATU. CERTIFICA*** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. L9WS-KNV6-YOU5-EN86 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) L9WS-KNV6-YOU5-EN86 en www.ebizkaia.eus.